



AURREZ AURRE: JOXE MARI PAGOAGA ARRASATEN, 22 URTE KANPOAN EGON ETA GERO

Arrasate

UPRESS

1996ko
azaroak 15
340. zenb.

Sexu segurua



**30 GALDERATAN: EDURNE ERAUSKIN • KULTURA: ENRIKE FORONDA
KIROLAK: ZIGOR URAIN • IKUSPEGIA: BIXENTE AZKARATE • IRITZIA: RAFAEL LAFUENTE**

EROSKI HIPERMERKATU BERRIA ARRASATE HANDIKIRO EROSTEKO



IREKIERAKO
AZAROA
19
ESKAINITZA HANDIA



**HAZI EGIN DA HIPERMERKATUA ETA
HAZI BERE ABANTAILAK ERE**

- ▶ 7.000 m².
- ▶ 40.000 produktu-erreferentzia.
- ▶ 650 aparkaleku-plaza.
- ▶ Hazi egin gara zerbitzuetan:
 - Kafetegi-Jantokia
 - **EROSKI** Bidaiak Agentzia
 - Auto-Zentroa
 - Galeria Komertziala
 - Jolastokia

Zatoz Arrasateko **EROSKI** Hipermerkatu berrira. Denetik daukazu handikiro erostek eta preziorik txikienetan.



ARRASATE

Jubilazioa: aurrera begiratzeko sasoia

Jubilazioak berarekin dakar lanik ez egitea. Jubilatua egin behar batzuk uzten ditu, baina har ditzake beste batzuk. Etapa atsegina izan daiteke, askatasuna berreskuratzen da eta ez dago erantzunkizun garrantzitsurik, ez lan-mundukoak, ezta seme-alabak hezitzekoak ere. Jubilazioa betidanik gustatu izan zaigun gauza horiek egiteko sasoi bezala hartu behar dugu, denbora faltaren ondorioz sekula egin ez ditugunak.

Jubilatuaren harreman kontuak ez dira desberdinak bizitzaren beste etapa batzuetan egoten direnen ondoan. Komunikazioa, bestearekin harremana izatea, maitasunaren trukaketa eta familiaz haratago dauden taldeetan parte hartzea, norberak lotura



Bixente Azkarate

duen auzotar eta lagunekin batera bizi behar dira.

Gizarte mailan laguntza eman dezaketen mekanismoak badira, jubilatutxek bezalakoak, ekintza fisiko, sozial eta kulturalak antolatzen dituztenak. Jubilatuen bilkura toki hauek, aisialdia

betetzeko aukera ugari eskaintzen dute eta garrantzia berezia dute, esate batera bizitzeko era aldatzeko ahaleginak bultzatzerakoan.

Pentsatu beharra dugu jubilazioa, arduretatik aske, heldutasunean egin

ezin izan dugun ekintzak betetzeko sasoia dela. Aurrera begiratuta etorkizuna ez dugu beltz ikusiko eta denboraren iragana baikortasunez ikusi ahal izango dugu.

Dibertimendua eta taldean burututako denborapasarako

ekintzak oso positiboak dira. Ekintza sozialak jubilatuen bizi kalitatea hobetu eta luzetzen du. Bakardadeak eta isolamenduak, berriz, fisikoki eta psikikoki geldirik egotea ekar dezake. Jubilatuen ongizatean garrantzia berezia du ekintzetan parte hartzeak.

Partehartzea eta ekintza kulturalak bultzatu behar dira, zahartzaroan gizakia ez dadin triste eta deprimituta egon, denbora librearekin zer egin jakin barik.

Era berean jubilatua eta osasun taldearen arteko harremanak positiboak izan behar du, talde horretako partaide guztiak jubilatuen ongizate fisiko, psikiko eta sozialean interes handia dutela pentsatuz.

Bukatzeko Hipocrates ekarriko dugu hona, berak zera zioen eta: neurriko elikadura eta ekintza, baina batez ere moderazioa, errezetarik onena dira gaitasun fisiko eta psikikoa galdu barik bizitzari luzaroan eusteko. Modu horretan "osasuntsu zahartzea" lortuko dugu.

(Erredakzioan itzulia)

“Pentsatu beharra dugu, jubilazioa, heldutasunean egin ezin izan dugun ekintzak betetzeko sasoia dela”

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Mania Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egues. **Publizitateak:** Alberto Giarro, Kaitlin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administratzailea:** Ikerno Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Diselnuak:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Rosa Mondragon, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Unibarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larraga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati). **ARRASATE PRESSEk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana. Laura Scarparen ilustrazio batean oinarrituta.

340. zenbaki honetan

1996ko azaroaren 15ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen.....	10/12	Kulturaren txokoa.....	26/27
Irakurlea idazle.....	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza.....	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia.....	17/19	Denbora pasa.....	32
Astearen errepassoa.....	9	Kirolak jokoan.....	20/23	Ikusi eta entzun.....	33

Ikuspegia

Bixente Azkarate.....3

Euren ikuspuntutik

Rafael Lafuente.....8

Hogeita hamar galderatan


Edurne Erauskin.....30

Aurrez aurre

Joxe Mari Pagoaga.....24/25

Asteko gaia

KONDOIA: sexu seguruena.....17/19



15

ostirala

■ ZINEA

Tormenta Blanca Alai Zineman 7etan eta 10etan.

■ LIZARDI 1896-1933 ERAKUSKETA

Lizardi erakusketaren inaugurazioa arratsaldeko 7etan Monterronen.



■ KANTALDIA

Tapia eta Leturia Band gaueko 10etan Eskoriatzako frontoian. Sarrera 800 pta. Aurrez 600 pta. Arrano, Mirentxu eta Aldatz tabernetan.

16

larunbata

■ ZINEA

Magia en el agua Alai Zineman 5etan, 350 pta. *Tiempo de matar* 7.30 eta 10.15etan.

■ BAZKARIA

Ardi eta buzkantz bazkaria Alkartetxean. Izenematea 79 64 53 telefonoan.

■ MANIFESTAZIOA

"Militarismoari intsumisioa" lelopean manifestazioa. Arratsaldeko 7etan aterako da manifestazioa Sebero Altubetik.

■ HAURENDAKO JAIALDIA

Takolo, Pirrutex eta Porrotx pailazoekin haurrendako jaialdia arratsaldeko 5etan Eskoriatzako frontoian. 8etan txikiteoa Gardokirekin. 9etan txiste afaria: Txiskolatik Bergarako Aitor Muruamendiaraz, Igor Oruesagasti eta Iñigo Almorza. Prezioa 2.500 pta, euskaldun berri, ikasle, langabetu eta Axtrokiko bazkideentzat 1.500.

17

igandea

■ ZINEA

Magia en el agua Alai Zineman 5etan, 350 pta. *Tiempo de matar* 7.30 eta 10.15etan.

■ KONTZERTUA

Catalin Bucataru bibolinjolea eta Patxi Aizpiri pianojolea 7etan Amaia antzokian. Brahms, Ravel eta Francken piezak.

■ MARRAZKI LEHIAKETA

Eskoriatzako plazan 6-16 urte bitarteko gazteentzako marrazki lehiaketa goizeko 10etatik aurrera. Sari banaketa 5etan.

■ EUSKAL DANTZAK

Eskoriatzako plazan eguerdiko 13.15etan Eskoriatzako Gorosari dantza taldearen emanaldia.

18

astelehena

■ ZINEA

Tiempo de matar Alai Zineman 7 eta 10etan.

■ IKUSENTZUNEZKO EMANALDIA

Batis Goikoetxea eta M.A. Otxoaren eskutik "Aitzgorri" ikusentzunezko emanaldia Aita Menni ospitalean.

19

asteartea


■ ZINEA

Tiempo de matar Alai Zineman 7 eta 10etan. Ikuslearen eguna.

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

20 asteazkena

■ IKUSENTZUNEZKO EMANALDIA

I. Lasaren eskutik "Kang-chungtse" ikusentzunezko emanaldia Aita Menni ospitalean.

■ MENDI ASTEA

Aretxabaletako Murruxok antolatuta Patxi Sanzen "Neguko solstizioa Euskal Herrian" proiektzioa 7.30etan Zaraia zineman.

21 osteguna

■ ZINEA

A Wong Foo, gracias por todo Alai zineman 7 eta 9.30etan.

■ ZINE KLUBA

Lahijadelpuma Amaia Antzokian 9.30etan. Sarrera 400 pta., Gazte txartelarekin 350.

■ HITZALDIA

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako Zentroak antolatuta Alzheimerri buruzko hitzaldia eta bideo foruma arratsaldeko 4etan Santa Teresa sako egoitza. Hizlaria Nekane Plazaola.

■ MENDI ASTEA

"Segurtasuna mendian" hitzaldia 7etan Aretxabaletako udaletxeko ganbaran.

■ SOROSPEN IKASTAROA

DYAK dohaineko Sorospen Ikastaroa antolatu du Arrasaten. Ikastaroaren gaiak: Anatomia, bihotz-biriketako berpiztea, *shocka*, odoljarioak, erredura eta izozketak, elektrizitateak sorturiko zauriak, traumatismo mekanikoak, aparatu lokomotoroko traumatismoak, zaurituen jasotze eta garraioa, larrialdi medikuak, konbultsio egoerak, erditzea, intoxikazio eta pozoidurak, zaurituari laguntza psikologikoa, trafiko istripuak eta botikineko praktika orokorrak. Ikastaroa azaroaren 21ean hasi eta abenduaren 20an amaituko da. Ordutegia 7etatik 9etara. Lekua San Viator ikastola. Informazioa eta izenematea 46 46 22 telefonoan.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek mendi irteera antolatu du azaroaren 24rako. Bidea: Urizaharra-Toloño-Bastida. Autobusak goizeko 7etan aterako dira Garibaitik. Izenematea azaroak 19, 20 eta 21ean 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitza.

■ MARTXE ARANAREN ERAKUSKETA

Martxe Arana margolari arrasatearraren margoak ikusgai azaroaren 24ra arte Harresi Aretoan. Erakusketaren ordutegia: Lanegunetan 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12tatik 14etara eta 6etatik 20etara.

■ IKASTAROAK ALKARTETXEAN

Alkartetxean pintura, sukaldaritza eta eskulanezko ikastaroak prestatzen ari dira. Horietan parte hartzeko interesa duenak dei egin dezala 79 64 53 telefonora arratsaldeko 7etatik 9etara.

■ PELUKERIA ETA ESTETIKA

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentruan pelukeria eta estetika ikastaroa emakumeentzat. Iraupena 50 ordu. Izenematea azaroaren 28ra arte. Ikastaroa abenduaren 2an hasiko da. Informazio gehiago zentruan.



■ LIZARDI ERAKUSKETA

Gaurtik azaroaren 27ra bitartean, Jose Maria Agirre *Xabier Lizardi 1896-1933* olerkari eta euskaltzalearen gaineko erakusketa izango da Monterronen. Gaurko inaugurazioan gainera, hiru haurrek Lizardik 1930ean Arrasaten emandako hitzaldia irakurriko dute. Erakusketan Lizardiri buruzko bideoa ere izango da ikusgai. Olerkariaren bizitza, bere familia, garaiko egoera sozio-politikoak eta mugimendu euskaltzale eta literaturazalea jasotzen dira *Lizardi* erakusketan.

Azaroaren 15etik 27ra. Monterronen. Laneguneta: 6-8. Jaieguneetan: 12-2/6-8.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 15

- 10ak arte: Español. Iturriotz.
- Egunez eta gauez: Cuellar. Bergara.

Larunbata 16

- Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola

Igandea 17

- Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Astelehena 18

- Egunez eta gauez: Amezuza. Santamaina.

Asteartea 19

- Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteazkena 20

- Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Osteguna 21

- Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
-------------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
--------------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
.	77 12 64
Oñati	76 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
----------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
--------------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.	79 78 44
.	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

Monterrongo liburategia

Monterron	77 01 05
---------------------	----------

"CARTONAJES ESMA" N LANGILE BAT KALERA BOTA DUTE

Duela bi aste "Cartonajes Esma" n LAB sindikatuko afiliatua den langile bat kaleratu dute, Manuel Montiano gerente-ari langile honen presentzia lantegian jasan ezinezkoa suertatzen zitzaioelako. Gerenteak kaleratzeko gutun- edo "carta de despido" delako horretan despidoa nolabaitean justifikatu egin behar du eta honako bi arrazoi hauek azaldu ditu kaleratzeko motibu bezala: bate-tik, urtariletik hona jaso dituen bere nominak ez sinatu izana; eta bestetik, gerentearen ama aipatuz, irazkin despektibo bat egin izana.

Bigarren motibutik hasita, esan beharra dago kaleratutako langileak behin eta berriz ezeztatu digula berari leporatzen zaizkion hitzak erabili zituenik; Gerentearen lekukoak (bata bere anaia-aren koinatua eta bestea bere amaren etxea garbitzen duena) faltsuak dira, Gerentearen esanetara baitaude. Lehenengo aitzakia berriz, hain da ximplea eta motibu barekoa, azalpenetan gehiago luzatzea ere ez duela merezi.

Era berean, ez dugu ulertzen CCOOko ordezkariak despido honen aurrean izan duten jarrera, gai hau aztertzeko asanblada bat lantegian antolatu bazuten ere, inolako ekimenik ez baitute izan

langileen kontzientzia astintzeko, suposatzen denean edozein lantegiko delegatu elkartasuna zabaltzeko ahal-eginetan aitzindari izan beharko litzatekeela.

Bukatzeko, "Cartonajes Esma" ko zuzendaritzari esan behar diogu alde bientzat egokia izango den irtenbidea nahi dugula aurkitu, baina akordio batera iritsi ezean, gure eskutan dauzkagun tresna guztiakin borrokatuko dugula irtenbide duin bat lortzen dugun arte.

Arrasateko LAB

LABen OHARRA DELA ETA

Langile baten kanporaketa zela eta, urriaren 21ean, Cartonajes Esma lantegiko delegatuek gerentearekin eztabaidatu ondoren, kanporatze erabakia atzera botatzeko eskatu genion.

Gerenteak ezezkoa eman zigunez, langileak asanbladara deitu genituen, gainontzeko langileei enpresak argudiatutako arrazoiak azaltzeko, eta era berean egotzitako langilearen alde zerbait egin zitekeen aztertzeko.

Asanbladan egon ziren langileen aho bateko erantzuna honako hau izan zen: "kaleratuak bere lankideekiko izan duen jarrera dela eta, kanporatze erabakiaren aurkako inolako presiorik ez egitea".

Lantegiko delegatu bezala enpresari berriro eskatu nahi diogu kanporatze erabakian atzera egiteko.

Cartonajes ESMAko CCOOko delegatuak

(Erredakzioan itzulia)

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**


Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

Memesa
79 42 22

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Superstiziosoa zara?



Maite Alkorta
Etxekoandrea
(50 urte)

Horrelakorik burutik pasatu ere ez. Ez dut horrelako gauzetan sinisten, ez nik eta ezta nire ingurukoek ere.



Bonifacio Del Olmo
Jubilatua
(69 urte)

Ez, eta ez naiz inoz izan.




Oscar Andres
Ikaslea
(20 urte)

Ez, horrelako gauzek ez naute arduratzen. Gauza batzuetan sinisten dut, baina ez naiz superstiziosoa.



Rafaela Alcaide
Etxekoandrea
(42 urte)

Ez asko. Zerbaitetan beharbada bai, baina orokorrean ez.



Jose Ramon Celemin
Langilea
(47 urte)

Apur bat beharbada, baina ez gehiegi. Adibidez, ez naiz eskailera baten azpitik pasatzen.



Naiara Amado
Ikaslea
(17 urte)

Batzuetan bai. Asteartea eta 13 denean, adibidez, bai. Egun horretan zerbait txarra gertatuko zaidala pentsatzen dut.



Ivan Nuevo
Ikaslea
(18 urte)

Bai. Beti eskumako hankarekin jaikitzea naiz eta ez zait kolore oria gustatzen. Gainera, eskumako galtzerdia eta oinetakoa jartzen ditut lehengo.



Ana Mari Fernandez
Langabetua
(19 urte)

Ez, ez dut horrelako maniarik.

Hiru ezaugarri dira bereizten gaituztenak:
• Kalitatea • Zerbitzu ona • Prezio hobekak

BERGARA PIEL

Espaloia, 6 • BERGARA • Tel.: 76 20 70

USTEAK USTE

Auto ilada luzeak herriko sarreran

Antzuolatik Arrasatera etorri ahal izateko orduerditik gora egunero; bueltan 6ak/7ak aldera irtetzen banaiz, apur bat gehiago. Denbora gutxiago erabili izan dut aurten-go udaran bizikletaz pasatzerakoan, baita pajarak erdi jota etxerako biden jartzten nintzenetan ere.

Izan ere, obretan da ia bailara osoa. Antzuolatik Bergarara galipoteatzen ibili dira; Bergaratik hona, zati batean bazter garbitzen eta bestean kunetagintzan dabil-tza; Arrasateko sarre-ran bertan, errotdak egiten; Aretxabaletara-ko bidea hartuz gero, orain gutxira arte galipot lanetan ikus zitezkeen kamineruak. Horren guztiaren emaitza? argi eta garbia aipatutako tokietara hurbilduz gero, auto ilada luzeak eta erretentzioak nonahi.

Obrak onerako izango direlakoan egiten dira, eta ez dago dudarik errepide-ak hobetuko direla. Zirkulazio arazoa konponduko den? Hiru arrasatearretatik batek autoa ei du, bailaran proportzioa antzerakoa izango da seguruen. Atera kontuak!

Beñardo Kortabarria



DYA, borondatezko lana

Rafael Lafuente

DYA (Geratu eta Lagundu) elkarte Antonio Usparitza medikuak sortu zuen Bizkaian 1966an, errepidean istripua izandakoei laguntza emateko eta ospitalera ahalik eta baldintzarik onenetan eramateko helburuarekin. Harrezkero, 1973an, Jose Antonio Malok abian jarri zuen Gipuzkoan eta bi urtera Nafarroara eta Arabara zabaldu zen; ondoren Madril-en, Caceresen, Ferrolen, Tarrasan, Zaragozan eta Bur-gosen eratu zen, eta gaur egun Valladoliden, Cadizen eta Huescan ezartzeko lehenengo pausoak eman dira.

DYAk 12 ordezkari-tza ditu Gipuzkoan: Donostia, Azpeitia, Eibar, Hernani, Tolosa, Zarautz, Hondarribia, Errenteria, Antzuola, Usurbil, Lasarte eta Mutriku.

Deba Garaiko ordezkari-tza Antzuolan dago eta handik egiten dira ateraldiak

Arrasate, Antzuola, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Zumarraga, Urretxu, Legazpia, Soraluze etab. etan larrialdietan laguntzeko.

Ordezkaritza hori 1983ko irailearen 22an hasi zen lanean eta lehenengo ambulanzia erosteko gestioa urte berean egin zen, Deba Garaiko biztanleen eta Antzuolako Goizper kooperatibaren laguntzarekin.

DYAk 23 urte hauetan egin duen ahalegina handia izan da, hedatze-lanetan (pre-

**“
Borondatezko lana egiten dutenen prestakuntza etengabea da
”**

bentzio zerbitzua) nahiz borondatezkoak gertatzen.

DYAn era askotako lanak egin behar izaten ditugu, aurten-go ekainaren 23an ospatutako Goitibehera Txapelketa esate batera, AEDk antolatua. Izan ere, horrelako ekintzetan istripuak gertatzeko arriskua txikia izaten da, antolatzaileek segurtasun neurri handiak hartzen dituztelako. Oraingoan istripu bat gertatu zen mojetako kurban, goitibehera bat bidetik irten eta itzuli zenean. Osasun zerbitzuek min hartutako bi lagunei azterketa medikua egin ondoren, horietako bat Eskualde Ospitalera eraman behar zutela adierazi zieten antolatzaileei. Bestea, berriz, antolatzaileek autoz.

Borondatezko lana egiten dutenen prestakuntza etengabea da, medikuek, erizaintzako unibertsitate-diplomatuak eta medikuntza larrialdietako teknikariek gaur egungo teknikak irakasten baitituzte sorospen eta larrialdi medikuntzaren alorretan.

Bukatzeko, Deba Garaiko biztanleei eskerrak eman nahi dizkiet, lanean gogoz jarraitzeko animatoan ematen diguten laguntzagatik, azken finean DYA denok osatzen dugu eta. ■

Rafael Lafuente
DYAko Osasun arloko arduraduna da

 **MARKO-JARTZEAK**
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

astea bi hitzetan

■ **Laborman-en aurka lehergailua**

Joan den ostegun gauean lehergailua jarri zuten Labormanek Biteri etorbidean duen bulegoan. Eztanda handia izan zen arren, eragindako kalte material txikiak izan ziren. ETArenean ordu erdi lehenago Egin egunkarira egindako dei batek ohartarazi zuen, Laborman aurrean poltsa susmagarri bat zegoela.

■ **Garagartza-Aramaio errepede berria**

Garagartzatik Aramaio-ko mugaraino egin duten errepede berria inauguratu zuten joan den ostiralean. Guztira 214 milioi pezeta kosta zaio errepedea konpontzea Gipuzkoako Dipu-

tazioari. Konponketa lanek ia urtebete iraun dute, eta lan handiena Aramaio errekarako zubia eraikitzeak ekarri du.

Psikiatriko biak lotzen dituen pasabideari buruz Antxon Jaimek, Errepide Zuzendariak, esan zuen, Diputazioak ez duela orain dagoena bota eta berria egiteko asmorik. Errepide Zuzendariaren berbetan, obrek ez diete pasabidea eusten duten zutabeei eragin eta horregatik, ez dute Udalak eskatu bezala berria egingo.

■ **EKBren hitzaldia Monterronen**

Euskarak gaur egun bizi duen egoera izan zuen min-

tzagai Juan Mari Mendizabalek joan den ostiralean Arrasaten. EKBko lehen-dakariak esan zuenez, euskararen inguruan asko dago egiteko, eta batez ere, administrazioaren bultzada eta borondate politikoa falta dira.

■ **AKEI berriz kea botatzen**

Greba utzi eta astelehenan lanean hasi ziren berriro ere AKEIko langileak. Euren egoerari irtenbide bat eman asmoz, datorren astean Dragados-ekin bilera izango dutela eta erabaki dute momentuz greba uztea. Bilera horretan Mankomunitateko ordezkariak ere parte hartuko dutela uste da.



ESKABADORAK SAN JUAN DE DIOS OSPITALEAN

Astean ospital psikiatrikoko San Juan de Dios eta San Rafael pabilioiak bota dituzte. Parean edifizio berriak egin dituztelako bota dituzte zaharrak. Orain toki horietan lorategiak egingo dituzte. Edifizio berriekin zerbitzu hobea eta pertsonalizatua emango da.



... Ikasketak bukatu aurretik ETBn praktikak egiteko aukera izan nuen. Gero ETBn hiru

urtez ibili nintzen lanean, hasieran albistegietan eta berandua-go programetan.

Ondorengo bi urteak hezkuntza munduan pasa nituen, Hezibideko koordinatzaile lanean, Deba bailarako kooperatiben hezkuntza elkarte bat. Arrasate Telebistan Bakarka saioa egiteko aukera ere izan nuen. Gero, hezkuntza eta kazetaritza elkartuz sortu zen Hitzaro. Komunikabideei dagokienez, telebista da gehien gustatzen zaidana, osatuena da eta”.



AINTZANE GARDOKI
Deia, 1996-11-11.



2005. urterako denda txikien erdia desagertu egingo da. Ez da dramatikoa, horrela da. Selektzio prozesu handia jasan beharko dute.

(...) Denda txikiak sormen lana egin behar dute eta denda handiak iritsi ezin daitezkeen tokietara iritsi. Denda handi batek egiten duena egiten baduzu hilda zaude”.


ANTTON PEREZ CALLEJA,
Merkataritzari Buruzko VIII. Ihardunaldiak, Gasteiz.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25



ileapaindegia

Tel.: 79 37 88 • ARRASATE



Esther Larrañaga Saiburuordea JMAn

JMA enpresa arrasatearrak ingurugiro alorrean egin dituen inbertsioak ikusten izan zen Esther Larrañaga asteazkenean. Ingurugiro Saiburuordeak esan zuenez, eredugarriak dira ingurugiroa zaintzeko JMAk egin dituen inbertsioak, eta zehaztu zuen horrelakoak egitea enpresarientzat errentagarria izan daitekeela. JMAko gerenteak, Jesus Mari Insunzak, egiten dutena baino gehigo egin daitekeela, baina beste lantegi batzuek egiten dutenarekin konparatuta JMA aurreratuta dagoela esan zuen.

1989tik aurrera ura depuragailu berezietan garbitzen dute JMAn.

Jaiotzak

- Nahia Jorge Amaral de Sousa. Azaroaren 6an.
- Unai Viteri Barrena. 11n.

Hildakoak

- Marcela Lasaga Zuazubiskar. Azaroaren 5ean. 89 urte.
- Claudio Pagaldai Leibar. 10ean. 68 urte.

LUIS URKIZU, Udalaren errekurtsioa aurrera eramaten ari den abokatua

“Auzitegi Gorenaren erabakia hiru urte t’erdi barru ezagutuko da”

Espainiako ejerzitoarekin ez kolaboratzeko erabakia hartu zuen Udalak 94an, eta laster auzitegien bidea hartu zuen erabaki horrek.

Orain dela gutxi Auzitegi Nagusiaren aurkako epaia jakin da, baina erabaki hori errekurritu egin denez, orain Auzitegi Gorenak eman beharko du epaia.

Errekurtsioa “Ekain” abokatuen taldeko Luis Urkizu abokatuak zuzendu du, eta berarekin hitzegin dugu gai honen inguruan.

- Noiz jakingo da Auzitegi Gorenaren erabakia?

- Salbuespen bat gerta daiteke eta urtebetean erabakia jakin, baina normale-

na hiru urte eta erdi barru ezagutzea izango litzateke. Udalarari ondo datorkio erabakia hain berandu ezagutzea.

- Gorenaren epaia ez da desberdina izango.

- Legea eginda dagoen moduan Udalek ezin diote ejerzitoarekin kolaboratze-ari uko egin, eta beraz, epaiak emanda daude. Auzi hauek intsumisioen epaiket modukoak dira, aurrez dakizu zein izango den epaia. Orain arte gai berdinen inguruko hainbat epai eman du auzitegi gorenak, eta erabakiak ildo beretik joan dira. Hala ere, gai batzurekin pasa den moduan, gerta daiteke hemendik urte

batzuetara Auzitegi Gorenaren iritzia aldatu eta epaiak desberdinak izatea.

- Erabakia aurkakoa bada nora jo daiteke?

- Auzia Epaitegi Gorenan bukatuko litzateke, baina ordura arte gauza asko gerta daiteke, eta horregatik esaten nuen epaia berandu ezagutzea Udalarari ondo dator-kiola.

2.000garren urterako gerta daiteke soldaduzkara joatea norberak erabaki beharreko zerbait izatea. Orduan horrelako auziak berez desagertuko dira, eta soldaduzka egin nahi duenak gobernu militarrean joan beharko du izenematea egitera.



Intsumisioaren alde

Asteazkenean bailarako hainbat ikaslek manifestazioa egin zuen NATOren eta zozketen aurka. Gaur, soldadutza non egin behar duten jakinarazi diete hainbat gazteri.

Astean, bestalde, bi intsumisio arrasatear epaitu dituzte: Alberto Biamonte eta Xabier Atxa (azken hau egun bat lehenago atxilotu zuen Ertzantzak). Datorren astean beste hiru epaituko dituzte: Jabier Arkonada, Gaizka Eraña eta Haritz Aldabe. Hilaren 27an berriz, Joseba Ezpeleta.

Zabalik dago sexualitatearen inguruko dudamudak argitzeko antolatu den zerbitzua

Astean atek zabaldu ditu sexualitate zerbitzuak eta astean bi egunez eskainiko du aholkularitza: astelehenetan 6etatik 8etara, eta ostegunetan 3.30etatik 5.30etara.

Zerbitzua berriaren egoitza Gazte Bulegoan dago, eta bertan egoten diren bi sexologoak arduratzen dira sexualitateari buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzeaz. Bestalde, telefonoz kontsultaren bat egin nahi dutenendako izango da aukerarik, baina

lerrook idazterako orduan oraindik zehaztu barik zegoen telefono zenbakia.

Emakume taldeen eta gazteria sailaren eskariz Udalak antolatu duen zerbitzu berri honek kanpora begira ere egingo du lana. Horretarako herriko taldeekin harremanetan hasiko dira, sexualitatearen inguruan zein ekintza antolatu erabakitzeko. Zerbitzuaren gidaritza daramaten bi adituen esanetan, zerbitzua adin desberdineko herritarrei zuzendua dago.



Gazte bulegoan izango du egoitza sexualitate zerbitzuak.

Hiper Eroski inauguratu

Datorren asteartean Hiper Eroski supermerkatu berriaren atek zabalduko dira. Egun bat lehenago, berriz, inauguratu egingo da Deba Garaiko zentro komertzialik handiena izango dena.

Supermerkatu berria gaur egungo Maxia baino lau aldiz handiagoa da.

Monterrongo liburutegiko zerbitzua gehitu daiteke

Langile kopurua murriztu zela eta, Monterrongo liburutegiko zerbitzua ere gutxitu egin zen. Maiatzean itxi egin zen bideoteka, eta uda ostean gutxitu egin zen liburutegiko ordutegia.

Astelehenean, berriz, Monterron Kultur Etxeko administrari lanpostuak jarrait-

zea, eta beste liburuzain laguntzaile bat kontratatzea erabaki zuen Gobernu Batzordeak. Era horretan, liburutegiak ohiko ordutegiari helduko diola, eta bideoteka zerbitzua ireki ahal izango da. Abenduaren hasieran Monterrongo iharduera lehenago berdina izango dela espero da.

30 milioi pezeta AKEIrako

Onartu du Diputazioak AKEIn transferentzia gunea egiteko 30 milioi pezeta ematea. Orain gune hori zein enpresak egingo duen zehaztuko da, eta Diputazioa obrak horiek lehenbailehen adjudikatzaeren alde azaldu zen. Gune horretan zaborra prentsatu da.



Kabia

ALTZARIAK



Erreformagatik guztia merke baino merkeago!

Prezio sinestezinak!

Aukera aparta!

Zatoz ikustera!

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 79 27 70



Lagun asko gerturatu ziren antzokira ekintza akademikoan parte hartzeko.

Biteri egoitzaren ekintza akademikoak Amaia antzokia bete

Asteazken arratsaldean 96-97 ikasturteko ekintza akademikoa egin zuten Biteri Egoitzako ikasleek. Beteri moduan Amaia antzokian egin zen ekintza akademikoa, eta gonbidatu asko gerturatu zirenez bete egin zen antzokia. Ikasle batzuen gura-

soez gain, herriko elkarte eta alderdi politikoetako ordezkariak hurbildu ziren ekintza akademikora. Gonbidatuta bazegoen ere Pello Salaburu, EHUKo errektorea ez zen Arrasatera etorri eta Eskolako lehendakariak, Julio Gallastegik, bete zuen

errektorearen tokia.

Ekintza hasi baino lehenago hainbat gazte antzoki kanpoan bildu zen, unibertsitate euskalduna eta euskal ikasleen eskubideak errespetatu daitezela eskatzeko. Ostean, pankartak antzoki kanpoan eskegi zituzten.

J. L. Iñarra errepidea zabaldu

Sei urtez itxita egon ondoren, datorren astean Jose Luis Iñarra kalea autoendako irekiko dute. Uharkapeko obrak zirela eta itxi zuten kale hori. Irekiko duten bidea, hala ere, autoendako izango da bakarrik, oinezkoendako arrisku-tsua dela uste da eta. Horregatik, Altamirara oinez joan nahi duenak Markoaldetik joan beharko du bertara.

Farmazia bat gehiago Arrasaten

Osakidetzak zehaztu du zein herritan eta zenbat farmazia zabaldu ahal izango diren. Arrasaten farmazia bat gehiago ireki ahal izango da. Herri bakoitzean dagoen bizilagun kopuruaren arabera erabakitzen da zenbat farmazia ireki daitezkeen.

Argitu da zer nahi duen INEMk itxiera perimetrala aipatzean

INEM erakundearen eraikinean zein itxiera egin zehaztu zuten alkateak eta INEMeko ordezkari batek asteazkenean egindako bileran. Alkateak azaldu bezala, itxidura bat egingo da autoek ez dezaten eraikinaren aurrean aparkatu. Seguruenik pibote batzuk jarriko dira enple-


gu erakundearen eraikinaren inguruan. Asteazken hitzeginakoaren arabera itxidura egiten denean, eta gasa sartzen bukatu baino lehenago, INEM Arrasaten izango da.

Joan den astean INEM Gipuzkoako zuzendari ordeak aldizkari honetan egindako adierazpeni buruz gal-

detzerakoan, Xabier Zubizarretak esan du INEMek ezin diola Udalari ezer leporatu, Arrasaten jaso duen tratua oso ona izan da eta. Gainera, Udalak etxea borondatez eta ez obligazioz eskaini diola zehaztu du. Alkatearen berbetan, INEMen aurkako erasoak gertatu zenetik

Udala izan da enplegu erakundearekin harremanetan jarri dena. Zubizarretaren ustez, Udalak lagundu dezake baina ezin du enplegu erakundearen ardura guztia bere gain hartu.

1995ko irailaren 27an jasan zuen Arrasateko INEMeko erasoak.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...

Miren Arrieta

ESTETIKA
ZENTRUA



Gorputza zaintzeko


PREZIO BEREZIAK

- Solarium-a
- Tratamenduak

ELEKTROLIPOLISIS:
16 funtzio desberdin

ELEKTROESKULTURA:
Drenaje linfatikoa
Bolumena kendu

Zatoz eta
konfidantza osoz
egin ezazu nahi
duzun kontsulta!



Zerkaosteta kalea, 12 (Abaroa ondoan) • ARRASATE



IRAKURRI LEHENENGO ETA GERO JAN

Azaroaren 8an ARRASATE PRESS berriaren aurkezpena egin zen AEDn. Arrasateko kultur taldeetako zein elkarteetako ordezkariak gonbidapena luzatu zitzaizkien aurkezpenera hurbildu eta bide batez Goikobaluren kantak entzun eta mokadutxoak egin zezaten. Azkenean 50en bat lagun agertu zen AEDn, ez dakigu aldizkari berria irakurtzeko irrikan zeudelako edo tripa-zorriak jota zeudelako.


GRIFE

Hezurretako mina, buruko mina... gripearen sintomak. Arrasaten etxe askotara heldu da birusa, baita ikasleetara ere. SFX Ikastolan adibidez, ikasgela batean 11 neska-mutiko falta izan dira aste honetan.

IZURRITEA

MAAAAAAAAAAAMBO!

Hau da hau gizon honen martxa! Asteazkenean hasi zen dantza karibia-rrren ikastaroan eman zuen izena beste emakume askorekin batera; baina ez zuen nor enbidiatu, sasoi, estiloa eta erritmoa ez zitzaion falta... Jakina, oraindik bere irakaslearen, Julio Lantiguaren maila ez dauka baina ikastaroa hasi besterik ez da egin...!



ALMENetik ARKOra BISITAN

Zein pozik jarri ziren ARKOko mutilak horrenbeste neska ikusita! Guztiz astoratu ziren baina Almeneko TASOC moduloko neskek ez zetozen mutil bila, ezta gutxiago ere, herri komunikabideei buruzko informazio bila eta egia esan, benetan interesatuta ziruditen gure lanarekin: galderaz josi gintuzten! Azkenean ezin izan zioten gure argazki kamarari ihes egin eta bisiten albumerako argazkia egin genien.





BAI, NAHI DUGU

Benetan dotore jantzi ziren Iosu Beitia eta Marimar Atxa euren ezkontzan... ez zen gutxiagorako! Gainera, begira zelako detailea: Iosuk Marimarren lora sortako loretxo bat jarri zuen bere amerikanako solapan! Irailaren 21ean ezkondu ziren eta Kubara joan ziren ezkonbidaian.

EPELDE

IZENAK

Jose Luis Angulo

izango da aurrerantzean Deba Garaiko Ospitaleko gerentea. J.I. Angulo Santiago ospitaleko pertsonal burua izan da, eta Alvaro Sainz de Viteri ordezkaturko du.

Jesus Rios Martinez

Eskualde Ospitaleko Zuzendari medikua izango da. Medikua honek Gurutzetako Ospitalean egin du lan, eta German Do Santos ordezkaturko du.

ZENBAKIA

28

Bolondres dabiltza lanean Deba bailarako DYAn, honela banatuta: antzuolarrak 2, arrasatearrak 7, aretxabalekarrak 3, bergararrak 3, eibartarrak 3, elgoibartarrak 1, eskoriatzarrak 1, gasteiztarrak 1, ormaiztegi-tarrak 1, soraluzearrak 2.



HIRU, BI, BAT... INAUGURATUTA!

Lasterketa baten hasiera ote da? Ez, ba. Kasu honetan, lau agintariak errepidea inauguratzeko hurbildu ziren Gipuzkoa eta Araba elkartzen dituen mugara. Pentsatzen jarrita, ez legoke gaizki Garagartza-Aramaio krossa antolatzea, ezta?

DATA

1989ko azaroak 8

Udaletxeko bileretan nahi zuenak euskaraz eta nahi zuenak erdaraz egin zezakeela zioen akordioa hartu zuen Arrasateko Udalak. Ordura arte, derrigorrezkoa zen erdera.

IBARRA Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko erropa




Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82



omu
keramikak

ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK

- Keramikak
- Harriak
- Terrazoak
- Aridoak
- Adreiluak
- Blokeak
- Teilak
- Onduline
- Aislanteak



BILTEGIA ETA BULEGOAK: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
ERAKUSKETA: Otalora, 1 behea • Tel.: 79 07 20 • ARRASATE

KONDOIA



SEXU SEGURUENA

“Latex gomaz, plastikoz edo sedaz egindako hodi formako estalkia, koitoan zakilean jartzen dena. Antisorgailu gisa eta sexu harremanen bidez kutsatzen diren eritasunen kontrako babes gisa erabiltzen da. Antisorgailu seguruenetakoa da”. Kondoia, hitz batean esateko.

Farmaziara erdi-lotsatuta sartu, txanda itxaron, beste norbait etorritz gero norberak presarik ez duela eta

aurea hartzeko esan... ingurura begiratu eta botikaria zain, beste inor ez. Oraintxe edo sekula ez!

-Eta, zer gura duzu?-haseurretuta bata zuriduna, ez du denborarik galtzeko edo ez du behar beste saldu gaurkoan-.

- Ba, preserbatibo kaxa bat. -ahopeko erantzuna-.

-Altuago berba egin mesedez!, ez dizut ezer entzun eta.

- Kondoiak, kondoi kaxa bat. -erantzun diot altuxeago eta urduri samar-.

- Hauek, horiek eta beste

haiek dituzu -dio berak, zuzen zuzenean begietara begiratu, zerbait txarra egiten banengo bezala-. Zenbatekoa behar duzu?

Botikako atea irekitzen da aukeratzeko unean. Bapatean edozein kaxa hartu eta mila pezetakoa mostradore gainerra.

- Kobratu mesedez! azkar bat eta aurpegia gorrituta kalera, kanbioak eta dena botikariari utziz”.

Aspaldiko eszena ematen

du, baina ez dira hainbeste urte antzerako egoerak ikusi eta bizi zitezkeela. Kondoia hitz ia debekatua zen orain urte batzuk. Zikinkeriarekin edo lizunkeriarekin parekatzen zen bere erabilera, nolabaiteko sexu harreman txarretako tresna balitz moduan; ez behintzat behar bezala ezkontutako bikoteena!. Gauzak, dena den, dezente aldatuta daude gaur egun. Farmaziara sartu eta edozein motako anti-sorgailuak eskatzeko arazorik ez da egoten, dagoeneko botikariek



ez diote inori era arraroan begiratzen, ezta ondoan suertatzen diren bezeroek ere, txandapasarik ez da egiten... eta gainera argi dago erabili erabiltzen direla. Horretaz ohartzeko, herriko inguruetatik pasio bat egitea besterik ez dago. Adibide batzuk: Atxabalpe aurreko aparkalekuari *La Condomina* deitzen diote Mondrako jokalariek, Murtzia taldeko estadioari bezala, nahiz eta pimentoneroen futbol zelaiarekin zerikusirik ez izan. Hori bai, lurtean kondoiak ikusteko ez dago ahalagin berezia egin beharrik. Urkuluk ere, sexu-harremantarako toki estimatua izan behar du, han ere erraz asko



Atxabalpeko aparkalekuari *La Condomina* deitzen diote Mondrako jokalariek, Murtzia taldeko estadioari bezala, hainbeste kondoi ikusten da

ikusten dira eta gomazko edo latexezko anti-sorgailuak.

Aurreko biak, autoa edukiz gero laister ailegatzeko moduko tokiak dira; baina, urruntxo oinez joateko. Bertan agertzen diren arrastoen arabera, Santa Barbara edo eta Monterron lirateke herriko txokorik intimoenatarikoak; garbitzaileek behintzat nahikoa lan izaten ei dute.

KONDOIAK ESKURA TABERNETAN

Kondoien erabilera dela eta ez dela, norbaitek zerbait jakitekotan horrek kondoi banatzaileak izan behar du. Ander Beristain bergararra da eta gaur egun eguneroko ogia kondoi makinak jartzetik ateratzen du, Arrasaten zortzi ditu. Lehen galeperrak saltzen zituen, baina istripu baten ondorioz, kamioi-frigorifikoa galdu zuen eta lan honetan hasi zen. "Hasieran gaizki pasatuen, dirua galtzen lehen sei

hilabeteetan, makina asko jarri artean, baina orain soldata polita ateratzen dut. 400 kondoi makina jarrita dauzkat, Araban, Gipuzkoan, Nafarroan eta Errioxan; orain daukat Bizkaian lanean hasteko asmoa". Gazte giroa edo gaueko giroa dagoen tabernetan jartzen ditu Anderrek bere makinak, komunitan norma-

lean. "Tabernak eskaini dezakeen beste zerbitzu bat da, 20 durogatik edozeinen esku dagoena, zerbitzu diskretoa gainera. Farmazietakoak baino merkeagoak izateagatik gureak txarragoak direla? Ez dut uste, kondoi denek dute gutxienezko kontrol bat pasatu beharra. Kalitatea dela eta ez dut kezurik jaso, beno txi-

Kondoia: nola erabili ondo?

1. Kalitatezko kondoiak erabili (erreparatu kaduzitatean).
2. Zakil tentearen gainean jartzerakoan, kondoiaren goialdea zapaldu hatzamarrekin, haziaren deposito barruan haizerik geratu ez dadin. Depositorik ez balu, itxi libre toki apurtxo bat.
3. Kondoia hasieratik bukaera arte jarri behar da.
4. Kentzerakoan, kondoia behealdetik eutsi, hazia isuri ez dadin.
5. Kondo berriak erabili betik.

Hies Ekimena

kiegiak direla esan dit baka-
rren batek, baina besterik ez.
Gehiago ere esango nuke, egu-
nero erabiltzen dituztenek on-
tzat dauzkate, ondo lubrika-
tuta daudela diote". Anderrek
hilaro egiten dio bisita maki-
nari, hustuz doana bete, gar-
bitu eta arazoren bat badu
hura konpondu. Hori kontuan
hartuta, badu berak erabilera
nola edo hala kontrolatzeko
modu bat. "Arrasate ez da toki
txarra, dexente saltzen dut,
Bergaran baino gehiago, eta
hori HIES Ekimenaren kon-
petentzia dudala. Martxa dago
bai herri honetan".


HIES EKIMENAK 20.000 BANATU

HIES Ekimenaren konpe-
tentzia aipatu du Ander Beris-
tainek, eta talde honen asmoa
lehian sartzea ez bada ere, ezin
ukatu hor tartean egon bada-
goela. 25.000 kondoi banatu
zituen iaz HIES Ekimenak
Deba Garaiko 48 tabernetan,
15 Arrasaten. Aurten, kopurua
txikiagoa izan da, 20.000 kon-
doi. Gehienetan jende gaztea
dabilen tokietan banatzen
dituzte kondoiak, baina baita
noiz behinka txikiteoko taber-
netan ere. Normalean taber-
narien aldetik, barran tokia
izanez gero, ez dute aurkako
jarrerarik somatu, ez da eta
HIES Ekimenaren ekintza hau
dirua ateratzeagatik antolatu-
takoa: kondoiagatik boronda-
tea besterik ez da eskatzen.
Merkatuko kondoirik onenak
ei dira HIES Ekimenak bana-
tzen dituenak, homosexuali
gogorragoak erabiltzea
gomendatzen bazaie ere. "Han-
diegiak direla esan digu nor-
baitek, baina jakina neurri kon-
tuetan ezin neurririk hartu".

Kondoiaren erabilera ez da
ezkutatzen; are eta gehiago,
gomendatu egiten da: "HIE-
Saren loterian ez sartzeko, jan-
tzi ezazu kondoiak" ikusi nuen
atzo bertan telebistan. ■

Beñardo Kortabarría

Merkatuko
kondoirik
onenak ei
dira HIES
Ekimenak
banatzen
dituenak,
homosexuali
gogorragoak
erabiltzea
gomendatzen
bazaie ere



ANDER BERISTAIN, KONDOI BANATZAILEA

"Arrasate ez da toki txarra, dexente saltzen dut hemen, Bergaran baino askoz ere gehiago, eta hori HIES Eki-
menaren kompetentzia dudala. Martxa dago bai, herri
honetan".

Anti-sorgailuen erabilpenaren aurrean, zer dio Elizak?

Anti-sorgailuen
erabilpenari baino,
garrantzia handiagoa
eman behar zaio sexoaren
ikuspegi moralari eta
sexoa duintasunez
bizitzeari. Gai honen
inguruan argitzeko
moduko pare bat puntu:

1) Eliza orokorrean
hartuta, berezitu beharra
dago eliza ofiziala eta
basearen artean, ez dago
eta ideia baterakoi bat,
postura desberdinak
daude.

2) Sexu harremanak
gizatasunez baloratu behar
dira, gauza santu bat balira
bezala. Sexoak gaitasun
ikaragarria du, eta gaita-
sun hori bideratu egin
behar da bata besteari
indarra, laguntza eta
maitasuna eskaintzeko.

Gaur egun ematen du
sexoa kontsumo moduan
planteiatuta dagoela,
gozamen hutsean geratzen
dela... eta bide horretatik,
kontsumo den heinean,
neurrigabekerira eramán

dute. Galdera egingo nuke:
askatasunaren izenean
persona ez da gero eta
esklaboagoa bihurtzen?
Morrontzan eroritako
sexualitate modelo
planteatzen dabilta, ez
sexu duinarena.

Horretan guztian anti-
sorgailuak zer? Une
konkretuetan bitarteko edo
laguntza izan daitezke.
Bakoitzak ikusiko du zer-
tarako erabiltzen dituen. ■

Jose Mari Astigarraga
(Arrasteko Parrokoa)

Ziklo-krossean Italian

ZIGOR URAIN

“Munduko Txapelketara joan nabi nuke”

- Italian egon zara asteburuan, Munduko Kopako lasterketa batean. Zer moduz?

- Selektioarekin joan nintzen eta gutxienez bukatzea lortu nuen. Neu oso pozik etorri naiz. 56 laguneren artean 49.a izan nintzen, lehenengoarengandik 6 minutura, eta gehienak profesionalak. Gainera, kontuan hartu behar da Europar dagoeneko 15 lasterketa inguru egin dituztela eta hemen bi besterik ez.


- Eta nola eman huelta egoerari?

- Lasterketa gehiago jarritz, errepidekoei parte hartzeko deia eginez eta diru gehiago jarritz. Italiako froga bukatzeagatik 15.000 pezeta ordaindu dizkigute eta 10 selektioarekin joateagatik; hemen, lasterketa bukatu eta 2.000 koa jasotzen dugu. Irabaziaz gero, Europar milioi terditik gora poltsikoratzen da; hemen, asko jota 50.000.

- Zeintzuk dira zure asmoak?

- Entrenatzeko lanetik denbora aterako banu Munduko Txapelketara joatea nahiko nuke, baina horretarako sasoi hobean egon beharra daukat. Ziklo krosa kirol intentsoa da, erlokuaren aurkako froga bat bezala.

Bestalde, elite kategoriakoei egurra eman nahi nieke aurten, Igartua, Pla eta horiei.



RUGBYA Beste garaipen bat?



Hernani izango dute aurrez aurre Patxi Gorosabelen mutilek aste honetan Garagartzako zelaian, larunbatean arratsaldeko 4etan. Partidua, beti bezala, zaila izango da, baina arrasatearrak dabilzan moduan ibilita badute irabazteko aukerarik. Hori gertatuko balitz, aurrerapausu berri bat emango lukete sailkapenean.

FUTBOLA Futbola ikustekotan, Atxabalpera!



Asteburu osoan, argia dagoen bitartean behintzat, nahi beste futbol ikusteko aukera izango da Atxabalpen eta Atxabalpe ondoko futbol zelaian. Izan ere, sei futbol partidu jokatuko dira larunbata eta igandea artean. Azpimarratzekotan, bi partidu, bata lehen taldearena, igandean 15.45etan, Pasaiaren aurka; bestea, berriz, emakumezkoena, goizeko 11.30etan Lagunak taldea aurrean izango dutela. Bientzat irabazi eta sailkapenean aurrera egiteko aukera izan daiteke. Emakumezkoen gainera, joan den astean 3 eta 0 galdu ondoren, oso ondo etorriko litzaeie berriro garaipenen bidea hartzea. Zehazterik ez du merezi, baina gainontzeko partiduak goizeko 9etan, 11.30etan eta 13.45etan jokatuko dira, esan bezala bai larunbatean eta baita igandean ere.

PILOTA Taldeen arteko Gipuzkoako Txapelketa




Kadete mailako pilotariak Ordiziako Gure Etxeakoen aurka jokatuko dute, Iturripen goizeko 11etan; jubenilak, berriz, Beasaingo Burumendiren aurka. Juniorrek eta seniorrek kanpora joan behar dute.

SASKIBALOA Atzeritarraren azkenean



Badalonara joango dira Urbina Maltzagakoak asteburu honetan, bertako Sant Giuseppe taldearen aurkako partiduari aurre egiteko zapatuan arratsaldeko 7.30etan. Kataluniarrek orain artean bi partidu besterik ez dituzte irabazi, arrasatearrak baino bat gehiago. Bidaiari berria Arrasateko taldearen autobusean, Moises Micael dominikarrak.

ESKUBALOA Partidu berezia larunbatean



Gertuko taldeen arteko partiduetan beti egoten da giro berezia, lehiakortasun handiagoa nonbait. Zarautza joan beharko dute eskubaloikoek larunbat honetan, arratsaldeko 7etatik aurrera etxeko taldearen aurkako partidua jokatuko. Nolakoa izango den? “zaila, baina ez ezinezkoa” taldekoen hitzetan. Zarautzarrek euren aldeko bi puntuko aldea dute gaur egun sailkapenean.

Ozeanoa zeharkatu du azkenik Moises Micael saskibaloia jokalaria dominikarrak

Dagoeneko Arrasaten dago Urbina Maltzagaren atzeritarrak, Moises Micael Cruz dominikarra. 21 urteko jokalaria, 2.03 metroko altuera du eta pibota da.

Bi hilabete inguruko iraupena izan dute Urbina Maltzagara atzeritarrak ekartzeko tramiteek. Denbora honetan guztian makina bat kontu entzun da Santo Domingoko burokraziaren moteltasunaz, moteltasunaren arazoia itsasoaz bestalde zegoenean. Hau da, Madrilen bertan.

Jon Ander Juldainek, Maltzaga Urbina taldearen ordezkariek, 2/3 minutu besterik ez ditu behar azken bi hilabete hauetako laburpena egiteko. "Santo Domingon

oporretan zegoela ikusi zuen Taugresko ordezkariek batek Moises Micael. Gurekin harremanetan jarri, bideoan ikusi genuen eta beste barik lan-eskaintza egitea erabaki genuen. Lan Ministeritzara bidali genuen lan-eskaintza, bertatik Santo Domingora bidal zezaten. Jokalariak sinatu zuen eta berriro Madrilerara bidali. Gero sarrera bisatuaren eskaera egin zen Kanpo Arazoetako Ministeritzan, Madrilen. Hor pasatu dute paperekin denbora, Santo Domingora bidali zuten arte. Jakina, hori guztia faxez. Eta gu pentsatzen Santo Domingon zegoela arazoa!"

Kontuak kontu, dominikarra Arrasaten da. Hemen-



Jon Ander Juldain.

dik aurrera ikusi egin behar taldeari falta zaion zer hori ematen dion; baikor dago Jon Ander Juldain. "Ez da amerikar tipikoa. Ez du izugarritz-

ko jokorik erakutsiko, baina dagoena egonda taldeak igerriko du. Gainera oso merke atera zaigu, bera bezalako beste edozein jokalariren laurdena kobratzen du eta".

Zaila da jakitea noiz arteko iraupena izango duen Moises Micael jokalaria atzerirako abenturak. Edozein modutan ere, Maltzaga Urbina-koek gazte hau etxean bezala egon dadin nahi dute, horregatik Erguingo etxebizitza batean jarriko da bizi izaten, bertako familia batekin. Jakinda estatuan bi urte igarotzen baditu nazionalitate bikoitza hartzeko aukera izango duela, pentsatzekoa da dominikarrak ahaleginak egingo dituela bertan geratzeko.



Arrasatearrak Behobia-Donostia lasterketan

Arrasatear ugari hartu zuen parte joan den asteko Behobia-Donostia lasterketan. Batzuk aurrerago, besteak beranduago, baina denak ailegatu ziren Boulevardeko helmugara. 10.000 lagunek egin zuten takarran, eta hainbesteren artean, gutxienez Enrike Kabiketa harrapatu zuen gure argazki makinak.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



OPIL
OKINDEGIA

DONIBANE-PAPYR

GOZOTEGIA

*Hurbildu zaituz
eta dastatu gure
oji eta pastel
bereziak!*

Inazio Zuloaga, 2 • Tel.: 79 80 50 • ARRASATE



Lehia ezinbestekoa da futbitoan, zerbait nahi duenak zerbait egin behar du. Bizitza honetan nekez irabazten da ezer norberak ahalegine-
ren bat egiten ez badu, eta futbitoan bizitzan bezala. Joko ona egin barik ere, ahalegintzen dena onartzen du ikasleak.

Ikusleek badakite jokalarien lana eskertzen

Laburrak

■ LESIONATUA

Anbotoste KT taldeko Iban Gonzalez jokalaria zorte txarra izan zuen. Jokatzen ari zela, erori eta ukalondoa ateratu zuen bere tokitik. Ospitalera eraman zuten berehala, eta han segituan jarri bazioten ere, denbora baterako badu jokalaria. Benda behintzat erakusteko modukoa jarri ei zioten!

■ GOLAK BARRA BARRA

Hau da hau txapelketa! batzutan golik ez eta beste batzuetan golak besterik ez. Joan den asteko partidu batean esate batera, 23 gol sartu zituzten. Emaizta eta partidu ikusgarria, Sokoakoak 14 eta Borrock'n roll 9.

■ PARTIDURIK INTERESGARRIENAK

Jende gehien ordu horretan biltzen denez, beti bezala larunbateko eta igandeko eguerdiko 12etan jarri dituzte partidurik interesgarrienak Zaldibarren. Larunbatean, Lorategi Potroak - Irati STS; Igandean, Fosforos - Cerveceria Leniz.



Lehen



Orain

Gorputza moldea daiteke!

Gaur egun, **Ramon Aginaga** Doktoreak, Zirujia Estetika Elkarteko partaideak **Miren Garairen** Zentruan egiten duen **Lipoeskulturak** emaitza harrigarriak lortzen ditu.

Erabiltzen diren beste teknika batzuk:

- Tripa erabat kentzea
- Bularrak txikitu edo handitzea
- Begietako poltsak kentzea
- Loditasuna eta barizeak

Miren Garairen Estetika Zentrua • 79 96 90

Zarugalde kalea, 23.zkia. 2 ezk.

Ebakuntzak Gasteizko Esperantza eritetxean egiten dira.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Irati STS 6	6	0	0	40	6		12
Betrayer	6	6	0	0	42	8	12
Abinagraus	6	6	0	0	42	12	12
Ojo Avisore	6	5	0	1	35	13	10
Arrogoi taberna	6	5	0	1	32	19	10
Galartza kont.	6	4	0	2	30	16	8
Aurrera Bolie	6	4	0	2	29	16	8
DKB	6	3	2	1	17	10	8
Pipwhis	6	4	0	2	27	21	8
Baneuko	6	3	1	2	13	18	7
Lorategi potroak	6	2	2	2	21	17	6
Leya	6	3	0	3	18	25	6
Kriskibalda	6	2	1	3	15	17	5
Onaniereng	6	2	1	3	12	27	5
Totem	6	2	0	4	24	27	4
Berango sukaldeak	6	1	1	4	19	25	3
Me la pela	6	1	0	4	14	20	3
Potrosorri	6	1	1	4	11	20	3
Alai gozokiak	6	1	0	5	9	40	2
Viboras	6	0	0	6	16	30	0
Kaxi ganamos	6	0	0	6	3	26	0
Etxe Mobil	6	0	0	6	2	49	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Insert Coin	6	6	0	0	39	7	12
Okoretegi	6	4	2	0	41	10	10
Cerveceria Leniz	6	5	0	1	31	8	10
Argi Ibili	6	5	0	1	44	13	10
Naranja Mecanica	6	5	0	1	32	14	10
Jotakabau	6	4	1	1	19	19	9
ZZPPW7	6	3	2	1	28	18	8
Los Innombrables	6	3	2	1	27	23	8
Motz	6	3	1	2	22	20	7
Ke oxtias!!	6	2	2	2	23	20	6
La mosca gao	6	2	2	2	31	28	6
Fosforos	6	2	2	2	18	19	6
Sobredosis de txeira	6	3	0	3	19	24	6
Pepelus	6	1	2	3	15	15	4
Ganbelas	6	2	0	4	24	31	4
Diego Antonio	6	2	0	4	20	27	4
Los Heredia	6	2	0	4	18	28	4
Perrahotsa	6	0	3	3	16	21	3
Kinder konpresa	6	1	1	4	17	34	3
Gualtrapas	6	0	1	6	13	39	1
Elisabeth	6	0	1	6	9	45	1
Hapoei Jamon	6	0	0	6	8	51	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Txeyenex	6	5	1	0	32	10	11
AC Surkos	6	5	0	1	54	15	10
Sortu Informatika	6	5	0	1	37	11	10
MSM Ing. Int.	6	5	0	1	29	17	10
Orlando Piratas	6	5	0	1	31	26	10
Sokoakoak	6	4	0	2	45	22	8
Bedarreta taberna	6	4	0	2	28	14	8
Nuevo taberna	6	3	2	1	22	16	8
Los Dimy	6	4	0	2	30	28	8
KK Jauriaritzari	6	3	1	2	22	25	7
Anbotoste KT	6	3	0	3	16	17	6
Lautherbrunnen	6	3	0	3	17	24	6
Danok Lagun	6	2	1	3	16	22	5
Adelaida	6	2	1	3	18	28	5
Koka Juniors	6	1	2	3	17	19	4
Hirei	6	2	0	4	19	30	4
Bukanak	6	2	0	4	18	38	4
Rotor de Bolbogrado	6	1	1	4	7	27	3
Iluna taberna	6	1	0	5	15	34	2
Tronkoteak	6	1	0	5	10	28	2
Cartonajes Igamo	6	0	1	5	10	24	1
Borrock'n roll	6	0	0	6	24	42	0

Emaitzak

A taldea

- Lorategi potroak 1 Me la pela 1
- Irati STS 7 Alai gozokiak 0
- Kriskibalda 0 Aurrera Bolie 3
- Arrogoi taberna 6 Baneuko 1
- Ojo Avisore 2 Berango sukaldeak 1
- Betrayer 6 Galartza kont. 2
- Abinagraus 9 Etxe Mobil 0
- Leya 7 Viboras 5
- Potrosorri 3 Totem 6
- DKB 1 Kaxi Ganamos 0
- Pipwhis 3 Onaniereng 7

B taldea

- ZZPPW7 5 Perrahotsa 4
- Motz 1 Los Innombrables 6
- Insert Coin 13 Kinder Sorpresa 3
- Ganbelas 2 Sobredosis de Txeira 5
- Ke Oxtias!! 4 La mosca gao 3
- Argi Ibili 6 Diego Antonio 2
- Okoretegi 11 Hapoei Jamon 1
- Jotakabau 1 Fosforos 1
- Cerveceria Leniz 12 Elisabeth 1
- Naranja Mecanica 8 Gualtrapas 1
- Pepelus 6 Los Heredia 2

D taldea

- Cartonajes Igamo 1 Bukanak 3
- Danok Lagun 2 MSM Ing. Int. 5
- Bedarreta tab. 1 Nuevo taberna 2
- Orlando Piratas 5 Koka Juniors 3
- Iluna taberna 2 Sortu Informatika 9
- Lautherbrunnen 1 Anbotoste KT 4
- Sokoakoak 14 Borrock'n roll 9
- Rotor de Bolbogrado 3 Los Dimy 7
- Txeyenex 9 Hirei 0
- AC Surkos 9 Tronkoteak 0
- KK Jauriaritzari 4 Adelaida Aldibi 2



ITURRIRA BAROLO! Frontoi ostean zegoen orain urte batzuk eta parkean jarri zuten berandua-go. Batean zein bestean ondo estimatua da Zal-dibarko iturritxo, batez ere bezperan parran-dan ibilitakoen aldetik.

Hurrengo partiduak

6. ihardunaldia

Azaroak 16, larunbata

Zaldibar

- 8.50 Los innombrables - Insert Coin
- 10 Alai gozokiak - Kriskibalda
- 11 Anbotoste KT - Sokoakoak
- 12 Lorategi Potroak - Irati STS
- 13 Aurrera Bolie - Taberna Arrogoi
- 14 Koka Juniors - Iluna taberna
- 15 Me la pela - Onaniereng
- 16 Gualtrapas - Pepelus
- 17 Los Dimy - Txeyenex
- 18 ZZPPW7 - Motz
- 19 Borrock'n roll - Rotor de Bolbogrado

Iturripe A

- 12 Etxe Mobil - Leya
- 13 Kinder Konpresa - Ganbelas
- 14 Berango Sukaldeak - Betrayer
- 15 Sobredosis de Txeira - Ke oxtias!!
- 16 Elisabeth - Naranja Mecanica
- 17 Sortu Informatika - Lautherbrunnen
- 18 Perrahotsa - Los Heredia

Iturripe B

- 13 Galartza kontenedoreak - Abinagraus
- 14 Hirei - AC Surkos
- 15 Hapoei Jamon - Jotakabau
- 16 MSM Ing. Int. - Bedarreta taberna
- 17 La mosca gao - Argi Ibili

- 18 Baneuko - Ojo Avisore

Azaroak 17, igandea

Zaldibar

- 8.50 Diego Antonio - Okoretegi
- 10 Cartonajes Igamo - Danok Lagun
- 11 Tronkoteak - KK Jauriaritzari
- 12 Fosforos - Cerveceria Leniz
- 13 Viboras - Potrosorri

Iturripe A

- 11 Totem - DKB
- 12 Bukanak - Adelaida Aldibi
- 13 Nuevo taberna - Orlando Piratas

JOXE MARI PAGOAGA (DEPORTATU OHIA)

“Deportazioa kartzelan egota”

Munduko hainbat tokitan deportatuta egon da Joxe Mari Pagoaga azken hogeitabi urtetan. Hego Amerikan, Afrikan, eta azken urteak Cabo Verdeko irla batean pasa ditu arrasatearrak.

Joan den ekainean, berriz, Baionara itzuli zen beste deportatu batzurekin, eta bost hilabetez espetxean egon ondoren, azaroaren 2an aske utzi zuten.

- Non ibili zara azken urteetan?

- 1975. urtearen hasieran Arrasateetik Iparraldera alde egin nuen. Anaiaren etxean egon nintzen, 80an Hego Amerikara joatea erabaki nuen arte. Lehenengo Venezuelan egon nintzen sei hilabetez, eta papearak berritzez ez zegoenez, handik Ekuadorrera bidali ninduten eta ondoren Mexikora. Tartean Nikaraguan ere egon

behar izan nuen.

Mitterrand boterera iritsi zenean, berriz, papearak ematen hasi zen eta 1983an berriro Iparraldera itzuli nintzen. Ondoren, GALen errepresioa gogortu eta Argeliara aldegin nuen. Bi urte eta erdi egon nintzen Argelian, baina bertako negoziaketak apurtu zirenean handik kanporatu egin gintuzten hiru taldetan. Beste zortzi deportatu, nire neska laguna eta ni neu Cabo Verdera bidali gintuzten. Zazpi urtez Cabo Verden egon ondoren, joan den ekainean beste deportatu batzurekin Baionara bueltatzea erabaki nuen.

- Zergatik joan zinen Arrasateetik ihesi?

- Beste askok bezala herri batean sinisten dudalako, eta orduan errepresio handia zegoelako. Beste arrasatear batzure-

kin batera irten behar izan nuen nik ere.

- Zergatik erabaki zenuen itzultzea?

- Ikusi genuen politikoki momentu ona zela, eta une hori aprobetxatu genuen gure egoera salatu eta plazaratzeko.

Baionako katedralean egun batzuk itxita igaro eta polizia sartu zen. Ni polizia espainiarren esku geratu eta Carabanchelen sartu ninduten, eta nire neska laguna Iparraldean utzi zuten ez legezko egoeran. Presoei bezala, deportatuoi ere sakabaketa ezartzen digute. Horrela, gure familiartekoek ere asko sofritzen dute.

Eskerrak etortzea erabaki

“Deportazioa inork epaitu gabe kondenatuta egotea da. Toki batean sartzen zaituzte bizi guztirako. Hori ez legezkoa da”



ta bezain txarra izan daiteke”

genuenari, bestela oraindik deportatuta egongo ginatke.

- Azken hilabeteak kartzelan egon zara. Zer da txarragoa, kartzela ala deportazioa?

- Deportazioa beste zigor moeta bat da. Toki batzuetan, Santo Domingon adibidez, deportatuta daudenak zeinegoeratan dauden ikusita gainera, deportazioa kartzelan egotea bezain txarra dela esan dezaket. Deportazioa inork epaitu gabe baina kondenatuta egotea da. Toki batean sartzen zaituzte bizi guztirako. Deportazioa asmatu zutenek oso ondo zekiten zelako mina egingo zuten. Hori ez legezkoa eta onartezina da. Cabo

Verden pasa ditudan urteak oso gogorrak izan dira, irla batean egotea itogarria egiten da eta.

- Euskal Herriko egoera asko aldatuko zen zu kanpoan egon zaren bitartean.

- Bai hala da. Pozgarria da gazteriaren jarrera zein den ikustea, lan handia egiten ari da eta. Gazteriak ikusten du pausoak eman behar direla aurrera joan ahal izateko. Guk gure momentuan ahaleginak egin genituen, baina oraingo

gazteak ere ez dira makalak eta herria maite dute. Etsaiak badauki hau ezin dela geratu, eta oraingo gazteak lehengoak baino gogorrago datozena.

Baikor naiz, aurrera egingo dugula uste dut.

- Zein egoeratan irten duzu kartzelatik?

- Behin-behineko askatasunean nago. Aurrerago jakingo dut nire kasua artxibatuta geratzen den edo epaitu egingo nauten.

- Zer moduz herrian egin zizuten ongi etorria?

- Hori deportazioa bezala da, ikusi arte ezin daiteke sinistu. Zoragarria da bakarrik ez zaudela eta jendeak gogoan zaituela ikustea. Herri baten alde egiten diren lanak ez dira ahaz-

ten eta hori garrantzitsua da.

- Zelan aurkitu duzu Arrasate?

- Hogeitabi urtetan erabat aldatu da. Orain txikiagoa egiten zait. Lehen Takolo urrun zegoela iruditzen zitzaidan, eta orain, Takolotik Zigarrolara eskaparateak ikusten joan zaitezke. Jakina, urteak ez dira alperrik pasatzen eta jendea ere aldatuta dago. Kaletik joaten naizenean batzuk aurpegi ezagunak egiten zaizkit baina ez dakit zeintzuk diren. Espero dut jende hori ez haserretzea!

- Aurrera begira zein plan duzu?

- Nire alaba Iruñean bizi da eta emazteak noizbait itzuliz gero, Iruñera etorri nahi du. Bihotzez nire herria Arrasate da, baina norberaren irtenbidea non dagoen ikusi beharra dago eta nirea Iruñean dagoela uste dut. ■

“Zoragarria da bakarrik ez zaudela ikustea. Herri baten alde egiten diren lanak ez dira ahazten eta hori garrantzitsua da”

PUB HAIZEA

arrasate

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tel.: 79 19 71 Tel.: 79 26 23

JUBAR

- Ate eta pertsiana automatikoak
- Mantenimendua
- Urrunerako aginte tresnak
- Seguritate pertsianak
- Sarbide kontrola

Kataide Poligonoa, 18 • ARRASATE • Tel.: 79 10 20 • Faxe: 79 08 17

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

Piano eta bibolin bikotea, 13 urteko pianojolea eta Zimerman maixua Arrasaten

Hemendik eta azaroa amaitu arte, hiru musika kontzertu izango dira Arrasaten, guztiak Arrasate Musikalen eskutik eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin antolatuta.

Lehena etzi bertan izango da, domekan arratsaldeko 7etan Amaia Antzokian. Catalin Bucataru bibolinjole errumaniarrak eta Patxi Aizpiri pianojole donostiarrak eskeiniko dute musika emanaldia. Aizpirik 27 urte ditu eta gaur egun Donostiako Orfeoaren pianojolea da; aurrez Donostiako Easo abesbatzarekin ere lan egin izan du. Bere piano ikasketak Donostiako musika kontserbategian egin zituen eta geroztik izen handiko pianojole askorekin hartu du parte ikastaro desberdinetan. Laussaneko (Suitza) Nazioarteko Piano Eskolan ikasi zuen ere Fausto Zadra irakaslearen zuzendaritzapean. Donostiarrak eman dituen piano emanaldiak ugariak dira eta ganbara musika talde askorekin parte hartu izan du. Bibolinjole errumaniarrari dago-kionez, bere bibolin ikasketak 6 urterekin hasi zituela esan behar da. 1986an Donostiara joan eta 1990ean titulu profesionala eskuratu zuen kalifikazio altuenekin. 1988an Orkestra Gazteen Nazioarteko Festibalean bibolinaren lehen saria jaso zuen. Dome-

kako kontzertuan Brahms, Ravel eta Francken piezak joko ditu bikoteak.

13 URTEKO PIANOJOLEA

Hurrengo kontzertua azaroaren 27an izango da. Bakar-lari gazte batek piano emanaldia eskeiniko du Arrasate Musikalen: 13 urteko Arkaitz

Mendoza Rodriguez donostiarrak. Gaztetxo honek Donostian egiten ditu bere ikasketak eta gaur egun piano noko 6. mailan dago, organoa ere jotzen duen arren. Oso gaztea izan arren, sari pilo-a jaso du, adibidez, 94an eta 96an Oinarrizko Mailako Donostiako Piano txapelke-

tan lehen saria, 95ean txapelketa berean lau eskuko modalitateko lehen saria eta 96an Parisko Lucien Wurmser lehiaketan lehen domina. Arkaitzek Bach, Mozart, Beethoven, Chopin, Dvorák, Albeniz, Esplá, Mompou eta Bartóken obrak joko ditu pianoan.

Zimerman pianojolea Amaian

Azaroaren 30ean gaueko 10etan Zimerman piano maixu poloniar handia Amaia

antzokira etorriko da Sinfonia Helvética orkestrarekin eta Grzegorz Nowak

musika zuzendari poloniarrekin. Zimermanek ez du ezer kobratuko Arrasaten jotzeagatik, ongintzazko kontzertua eskeiniko du eta takilako dirua osorik Arrasate Musikalentzat izango da.

Krystian Zimerman munduko pianojole handienetarikoa bat da eta Arrasatera etorri izana luxua da herriarendako. 1980. urtean Gurea antzoki zaharrean ongintzazko beste kontzertu bat eskeini zuen akademiaren alde eta orduan izan zen betekada ikusita, aurten gauza bera gertatuko dela antzeman daiteke.

Kontzerturako sarrerak datorren astean jarriko dira salgai akademian eta Mendi tabernan. Bazkideentzat 5.000 ptatan eta bazkide ez direnentzat 2.500ean.



**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

UGARTE

**Industri
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

ENRIKE FORONDA

“Lizardik engantxatu egin nau, guztiz txundituta geratu naiz berarekin”

Gaur Jose Maria Agirre Xabier Lizardiri buruzko erakusketa heldu da Monterronera. 1933an 37 urterekin hil zen euskal olerkari eta artikulista-ren liburuak, objektuak, bere familia-ren nondik norakoak, garaiko egoera sozio-politikoak eta kulturala ezagutu ahal izango dira erakustokian. Aretxabaletako *Hurbil Kulturgaiak* enpresako Enrique Forondak erakusketa zelan antolatu duten azaldu du.

— Noren ideia izan zen Lizardiren erakusketa antolatzea?


— Diputazioko Koldo Mitxelena kultur gunearena, beraz, diputazioak produktorearen ardura hartu zuen eta guk erakusketa egitearena, hau da, materiala eta enpresa lanarena.

— Nola dago antolatuta erakusketa?

— Erakusketa bat egin behar dugunean, erakusketa horretako gaiez dakien jendearekin harremanetan jartzen gara, kasu honetan, Lourdes Otaegirekin, bere tesi doktora Lizardiren gainean egin zuenarekin eta bestalde, Koldo Eizagirrerekin. Lourdesek testu gehienak prestatu zituen eta Koldok erakusketa nondik nora eta nola antola genezakeen esan zigun. Gero, erakusketan bertan, Lizardiren liburu guztiak, ETBk Lizardiri buruz egin zuen bideoa eta diagramazio panel pila bat dago.

— Zein izan zen Koldo Eizagirren proposamena?

— Berak esan zigun ez genezala Lizardi bakarrik kontuan hartu, baita bera bizi izan zen garaia ere. Lizardi 1933. urtean hil zen eta 1927tik 1933ra “Eusko Pizkundea” mugimendu garrantzitsua sortu zen Euskal Herrian. Garai horretan mugimendu kultural



handia eman zen, euskal idazle, poesia, arkitektura... gero, 36an, gerraren ondorioz, bertan behera geratu zen mugimendua. Hau ikusita lau alorretan banatu genuen erakusketa: sozio-politikoak, mugimendu euskaltzalea, garaiko euskal literatura eta azkenik, Lizardi bera eta bere familia.

— Orain arte zein harrera izan du erakusketak?

— Nahiko harrera ona izan du, baina egia da ez dela masak mugitzen dituen erakusketa bat. Ez da erakusketa efektista, efektiboa baizik.

— Lizardiri buruzko erakusketa bat antolatu ondoren, zein inpresio geratu zaizu berari buruz?

— Lizardik “engantxatu” egin nau, guztiz txundituta geratu naiz berarekin. Oso gizon borrokazalea zen, euskara eta Euskal Herria bihotzez maite zuena. Olerkari gisa ezaguna izan arren, artikulista oso ona zen eta gainera bera izan zen euskarazko artikulismoa proposatu zuen lehenetariko bat. Bestalde, jende askok ez daki Lizardi oso margolari ona zela.

aste gazte

■ BEKAK

• Gipuzkoako artisautza sektorea bultzatzeko laguntzak kaleratutako Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eskariak luzatzeko epea: azaroak 30.

• Osasun eta Kontsumo Ministeritzak, osasunarekin erlazio naturiko zientzia aktibitateen zabaltzea errezeko ekintza bereziak antolatu ditu. Epea, urte osoan zehar zabalik.

■ LANA

• Bergarako Udalak administrari laguntzaileen lan poltsa osatzeko deialdia luzatu du. Epea: azaroak 19.

• Santurtziko Udalak, administrari bat, arkitektu tekniko bat eta psikologo bat behar ditu. Epea: azaroak 22.

• Zangotzako Mankomunitateak gerente baten beharra du. Epea: azaroak 22.

• Albisturko Udalak, bertako Udaletxerako administrari eta kultur etxeko dinamizatzaile bat behar du. Epea: azaroak 25.

■ IKASTAROAK

• Kontserbatorio, musika eta dantza eskoletako irakasleak prestatzeko iharduerak burutuko dira euskal lurraldeko hainbat puntutan, beraetan gai ezberdinak landuko direlarik.

■ JARDUNALDIK

• Antzerkia eta haur heziketari buruzko jardunaldiak antolatu dira Tolosako Txontxongilo Jaialdiaren barruan. Haurren heziketa pertsonalean antzerkiak duen garrantzia landuko da. Epea: azaroak 28.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Hurbil Kulturgaiak antolatutako Lizardiri buruzko erakusketa Monterronera iritsi da

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Guztiz berrituta dagoen etxebizitza salgai Grupo San Juanen. Tel: 79 19 62. Gaez deitu.

• San Josepe auzoan etxebizitza salgai. Tel: 77 08 06.

• Las Malvinas-en etxebizitza salgai. Tel: 77 08 06.

3. Errentan emateko

• Pisua alokatzen da Maalako Errabalean. Tel: 79 31 51.

• Ikasleendako aproposa den pisu handi bat alokatzen da Erguin kalean. Tel: 79 22 79.

• Ola auzoko 37. zenbakian srdj jantzita dagoen etxea alokatzen da. Tel: 79 78 10.

5. Etxe konpartituak

• Pisua osatzeko pertsona bat behar da San Andres auzoko Errebuelta kalean. Tel: 86 07 86. Alaitz.

• Pertsona bat behar da Oñatin pisua osatzeko. Deitu gaez 78 16 63 tfnora. Karmen.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko lehenengo solairuan garaje itxia saltzen da. Tel: 79 18 70.

• San Andresen garaje plaza salgai. Tel: 79 73 82.

• Roneoko etxeetan garaje bikoitza eta itxia salgai. Tel: 79 14 66.

LOKALAK

12. Saldu

• Erguin kalean lokal bat salgai. Tel: 79 18 70.

• Lokala salgai Erguinen, orain drogadenda bezala dago. Tel: 79 89 53.

• Kontsulta amankomuna egiteko lokala salgai. Tel: 79 06 82 eta 79 46 20.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel: 79 28 01.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska batek lana egingo luke arratsaldeko 3etatik aurrera, etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaindu... 79 93 17.

• Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel: 79 07 73.

• Neska esperientziadunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tel: 79 95 92. Pili.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Tel: 79 34 09. Amaia.

• Zure etxea garbitzeko neska gazte baten bila bazabiltza dei egizu 79 46 82 tfnora.

• SOS. Lana behar dut. Emakume gaztea naiz eta bi seme-alaba ditut. Kamarera lana egin izan ditut. Tel:

79 53 18.

• Andra klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel: 79 34 53.

• Geriatria tituloduna egunez edo gaez pertsona edadetuak edo umeak egunez zaintzeko gertu. Tel: 79 61 05. Amaia.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel: 79 54 06.

• Bi neska jator arratsaldean lan egiteko gertu. Propaganda banatzen onenak gara eta konfidantzakoak. Tel: 79 52 37 eta 79 74 71.

• Mutila gidari lanak egiteko gertu. Tel: 77 04 20.

• Bergaran taxi plaza eskualdatuko nuke. Tel: 76 44 04.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke. Tel: 79 95 96.

• Nazio eta nazioarteko merkantzia titulua ajenziei alokatzeko prest edo lanpostu baten trukean aldatzeko prest. C-2 gidatzeko karneta ere badut. Tel: 79 72 46.

• Kanguro bezala lan egingo nuke ostiral eta larunbatetan. Tel: 79 12 00. Agurme.

• Neska lana egiteko prest. Tel: 77 02 70.

• Emakume gaztea tabernatan, etxea garbitzen edo umeak zaintzen hasiteko gertu. Tel: 79 67 30

18. Eskaerak

• Astebukaerarako lehen bailehen pertsona bat behar dugu kalkulo orri simple batera informazioa pasatzeko. Tel: 79 98 37.

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel: (945) 44 50 86.

• Harategian esperientziadun mutil bat behar da. Tel: 77 07 02.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. Tel: (907) 74 21 00.

• Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldean. Tel: 79 71 34.

• Neska euskaldun gaztea behar da moda denda baten lan egiteko. Tel: 79 81 82.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Klase partikularrik ematen dira. Tel: 79 06 39.

• Goi mailako industri injinerua klase partikularrik emateko gertu. Tel: 51 03 38.

• Injinerutza ikasleak DBH, UBI eta FPko klase partikularrik emateko gertu. Tel: 79 16 19.

• OHoko klase partikularrik ematen ditut prezio onean. Frantseseok ere bai. Tituloduna naiz. Tel: 79 50 99.

• OHoko klase partikularrik emateko gertu. Tel: 79 98 30.

• Pianoko klase partikularrik ematen ditut maila guztietan. Tel: 79 24 14.

• LH, DBH eta REMeko klase partikularrik emango nituzke. Euskaraz, jakina! Dei egin iluntzeko 8etatik 9etara. Tel: 79 33 39.

• EGA titulodun injinerutzako 2. mailako ikasle batek OHoko klase partikularrik emango lituzke. Tel: 79 64 03.

• Ingeles filologian diplomaduna klase partikularrik emateko gertu. Tel: 79 59 16.

- Irakasle titulodunak lehen hezkuntzako eta DBHko klase partikularrak emango lituzke. Tel: 79 94 04. Mari Jose.

21. Eskerak

- Matematika eta matematika finantzieroko klase partikularrak behar ditut. Tel: 79 40 24. Goizez. Libe.

- Marrakzi geometrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel: 79 83 33.

MOTORRA

23. Saldu

- Niva Lada SS-AB autoa salgai. Tel: 76 15 58.

- Ford Scort autoa salgai. 30.000 km. Egoera ona. Tel: 79 22 92.

- Fiat Tempra 140 SX autoa salgai. Tel: 77 06 48. Gaueko 9etatik 10etara deitu.

- Seat Malaga salgai, 98ra arte ITVa gaudituta dauka. 300.000 pta. Tel: 79 78 10

DENETARIK

26. Saldu

- Trabesiako ski ekipoa salgai. Dynastor Extreen taulak, Fritchi fijazioak, Fritchi kutxilak, Fritchi larruak eta 41-42 zenbakiko botak. Prezioa: 35.000 pta. Tel: 79 26 23.

- Antigualeko zapatak josteko makina eta zapatak konpontzeko makina salgai. Historikoak dira. Tfnoak: 71 50 72 edo 79 81 70.

- Ricoh FT 3320 fotokopiagailua salgai. Egoera ona. Tel: 79 28 17.

- Estreinatuta barik dagoen 3/4 bisoiko txaketoia salgai. Tel: 79 45 86.

- Logela berri bat salgai. 2 ohe eta bi mesanotxe. 20.000 pta. Tel: 79 78 10

- 1.50ko ohea, sekreterra eta mesanotxea dituen logela salgai. 15.000 pta. Tel: 79 78 10.

- Estreinatuta gabeko Lur Hiztegi Entziklopedikoa salgai. Tel: 79 87 47.

- Haur kotxea, aulkia eta kapazoa salgai. Burguja eta poltsa oparituko da. Tel: 79 90 03.

- Fostex 280 lau pistatako grabagailua eta Yamaha RX7 erritmo-kutxa salgai. Tel: 78 90 70. Gaez.

- Komunerako menpara ia berria salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 97 60.

27. Erosi

- Logela batendako arropa gordetzeko bigarren eskuko armairua erosiko nuke. Tel: 79 78 10.

31. Galdu

- Kanarioak ihes egin zigun Otalora kaletik eta oso triste gaude. Aurkitu baduzu dei mesedez 79 54 04ra.

32. Aurkitu

- Larunbat gauean kobxe baten giltzak aurkitu nituen Arbolapeta inguruan. Jabea Udaltzaingora joan dadila.

33. Bestelakoak

- Zaldi bat zure esku 10.000 pta. hilean ordainduz gero. Tel: 76 30 01.

- Tarot kartak irakurtzen ditut. Tel: 79 82 55.

HARREMANAK

34. Agurrak

- Zorionak Babu! Munduarendako zu zerbait zara baina batzuentzat zu mundua zara. Z.E.M.A. x Yogi.

- Maider, Maider, Maider... nire bihotzeko kokkorra. Beti maitatuko zaitut nahiz eta ni zuretzat inor ez izan. Zorionak for ever. Maite zaitut.

- Mikel "Oker": zu bai zarena narrezendua, urtebetetzeak ospatzeko dira ez sekretuan gordetzeko. Zorionak mozolo!

36. Deialdiak


- Azaroaren 30ean bazkaria egingo dute Gasteizen bizi diren arrasatearrak. Zuk ere parte hartu nahi baduzu dei egin: 945- 22 34 97 (Edurne) edo 945- 14 23 43 (Mila). Bazkaria Zaldiaran jatetxean egingo da.

37. Bestelakoak

- Bergara-Donostia, arratsaldeko 5etan joan edo gaueko 10etan etortzen bazara, zurekin gasolina konpartituko nuke. Tel: 76 46 26 (Nekane).

Etxe Aundi

Hotela**  Jatetxea



Torrauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI

*Gaur ez bada,
bihar*

ezkonduko

zara...

Etxe Aundin

zure zain

gaituzu.

■ Edurne Erauskin

SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLAKO ZUZENDARIA



Donostian jaiotako emakumea 39 urte. Pedagogia ikasketak egin eta lizentziatura ateratu zuen. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. 1985etik San Frantzisko Xabier ikastolako zuzendaria da. Bere bertuterik handiena konstantzia da, akatsa berriz, genio txarra.

- 1. Zein da zure horoskopoa?** Piscis.
- 2. Sinestuna zara?** Horoskopoetan behintzat ez.
- 3. Animalia bihurtzekotan?** Hontza, logabeena da eta.
- 4. Zure akats bat/gauza on bat?** Konstantzia/ Genio txarra.
- 5. Zerk lotsarazten zaitu?** Gorri jartzeak.
- 6. Amets bat?** Hemengo euskaraz mintzatzea eta gainera, hikaz.
- 7. Zer kenduko zenuke mundutik?** Biolentzia.
- 8. Gertakizun historiko bat?** Franco hil zela jakitea eta Arias Navarro telebistan erdi negarrez ikustea. Txanpainaz ospatu genuen tren batean: zelako giroa!
- 9. Nor miresten duzu?** Nire amona, bizitzaren aurrean duen jarrera baikor eta maitagarriagatik.
- 10. Zeri diozu beldurra?** Gure seme-alabei tokatuko zaien munduari eta bizimoduari.
- 11. Zertaz damutzen zara?** Haserretzen naizen momentu askotaz.
- 12. Negar egin duzun azken aldia?** Joan den irailean. Ikasurte hasiera txarra izan nuen.
- 13. Zer falta zaio Arrasateri?** Garagartza aldean hondartza.
- 14. Eta zuri?** Erlojurik gabe bizitzea, presarik gabe.
- 15. Lanbidez aldatzekotan?** Diseinuarekin zerikusia duen zerbituetan jardutea gustatuko litzaidake.
- 16. Arrasateko gustoko toki bat?** Garagartza.
- 17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Ez nintzela ezergatik inorekin haserretuko.
- 18. Zein egunkari irakurtzen duzu?** DVa. Asteburutan *El País* batzutan eta *Euskaldunon Egunkaria*.
- 19. Gustoko janari bat?** Arraina batez ere. Urdaiazpikoa ere.
- 20. Liburu on bat?** *Sostiene Pereira*.
- 21. Filmerik onena/txarrena?** Como agua para chocolate/ Ez dakit.
- 22. Musika talderik onena/txarrena?** *Beatles*en garaian geratu nintzen/ Ez dakit.
- 23. Telebistako programarik onena/txarrena?** Pelikulak gustatzen zaizkit/ Ez dakit.
- 24. Egin dizuten oparirik politena?** Sorpresa diren opari guztiak.
- 25. Denbora librean zertan pasatzen duzu?** Irakurtzen eta pasiatzen.
- 26. Oporretarako toki bat?** Eguzkia, itsaso garbia eta palmerak dauden toki bat.
- 27. Etxeko lanik gorrotagarriena?** Egunean zer janari ipini pentsatzen ibiltzea.
- 28. Gomendio bat?** Gauza guztiak bere alde ona dutela pentsatzea.
- 29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza?** Etxekoengatik.
- 30. 200 milioi irabaziz gero?** Txango bat egingo nuke.

• Gure Zahartxo Elkarteak •

Klinika / Geriatrian esperientziadun laguntzaileak hirugarren adinerako

24 orduko zerbitzua.

Deitu konfidantza osoz.

Ordutegia: Goizez: 9-13. Arratsalde: 17-19

Tel.: 79 84 01 / 79 62 04 • ARRASATE

Nerea Bengoa Fdez. de Campinun osteopata

Zirugia eta medikuntzan lizentziatua GREMMO-en osteopatian diplomatua

Bizkarreko minak, sorbalda, lunbalgiak, zerbikalgaiak, zefaleak, bertigoak...

Kontsulta Arrasaten, txanda hartzeko deitu

989-58 66 89 tel. mugikorrera

(Asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik- 13:00-ra)

Anporretarren eskutik Arrasateko paraje desberdinak ezagutzeko aukera

Patxadan taldea

Kontatzera noakizue, bide batez sail berri honi hasiera emanez, udazkeneko egun zoragarri batean gertatu zitzaizana. Ez dakit zehatz mehatz zer ordu zen baina paseoan ari nintzen bazkalostean Santa Barbarako parkean eta harresian eseri nintzen unetxo batez. Historian zehar Arrasate herrirako babeserako eraiki zen harresiak aulkiko funtzioak betetzen zituen gaur egun. Eguraldia primerakoa zenez, jende ugari zebilen paseoan: bikoteak, familiak, aiton-amonak... Nire ondoan mutil koskor bat zebilen bere arrebarekin jolasten eta metro batzuetara hauen gurasoak berbetan. Ez dut ohiturarik besteen elkarrizketan belarria ipintzeko baina gaia interesgarria iruditu zitzaidan eta belarria antena bihurtu zitzaidan; gaia, azken urteetan Arrasaten eta Euskal Herrian eman den aldaketa. Labur esanda, gizarte erruraletik industrialerako bidean gertatuak, gaurko bizitza eta duela urte batzuetakoaren arteko aldeak. Horietakoa adibidea lurra lantzen zenean tokien izeanak eta ezaugarriak ezagutu egiten zirela, gaur ez bezala.



Patxadan taldea herriko paraje eta bidezidorrak erakutsiko dizkizue.

“Zelai baserrian bizi nintzanean inguruko tontor guztien izenak eta hoietara heltzeko bideak ezagutzen nituen. Arrasatera bizitzera etorri eta ozta ozta Udalatx eta Muru ezagutzen ditut” zioen gizonekoak.

“Ba nik, bertakoa izanda, ahaztuta ditut hainbat bidezidor eta tontor. Gainera, orain jende guztia tokia beretsuetara joaten da eta toki lasai eta bakartietan denbora ematea

ezinezkoa da. Parke naturalak izendatzeak horretara garamatza”. Erantzun zion emakumezkoak.

Elkarrizketa hura utzi eta neure buruarekin hasi nintzen berbetan. Arrazoia dute. Eta jende horri Arrasateko paraje eta bidezidorrak ezagutzen lagunduko bagenio. Gainera, gurasoak ez badituzte orain ikasten seme-alabek ere ez dituzte ezagutuko. Horrela, lagun batzuren izenak etorri zitzaizkidan

gogora, astekari honetan idatzi eta lan hori egiteko egokiak. Horrela sortu zen patxadan taldea. Gertakari horretantxe isladatzen da gure helburua. Hamabost egunean behin Arrasate inguruko hiru orduko ibilbideak proposatuko ditugu. Ibilbideko protagonistak idatzi honetan agertzen den familia eta bere lagunak izango dira: Patxi, Anttoni, Harkaitz eta Haizea. Gure ibilbideetarako Anporretarrak izango dira. ■



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak

■ **Horoskopoa**

- **Aries** Ez al zara negar egiteaz nekatu? Nahikoa da!
- **Taurus** Ondo bizi nahi duzu baina zure jarrerarekin ezin da.
- **Gemini** Badator egun handia. Lasai hartu ordura arte.
- **Cancer** Beti ametsetan ari zara errealitatekin ihes egin nahi duzulako.
- **Leo** Ume handi bat zara. Noiz hasiko zaizu burua?
- **Virgo** Maitasuna, dirua eta osasuna. Guztiak zuretako.
- **Libra** Zoramena pozgarria da baina kontuz ibili.
- **Scorpio** Izarrek diote hemendik aurrera dena argiago ikusiko duzula.
- **Sagittarius** 100 urte beteko dituzu horrela jarraituz gero.
- **Capricorn** Zelako kolore gorriak. Sasoian zaudela ezin ukatu.
- **Aquarius** Isil-isilik ibiltzen zara eta horrek ez dizu laguntzen.
- **Piscis** Jendetza ikusi eta atzera egin? Ez lotsatu eta egin aurrera!

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10				11		
12			13			
14			15			
16		17		18		
19				20		

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Zurgin Kantoiko taberna. 6. Israelgo ibilgailuetan. 8. Zerbitzuek urduri jarri. 10. Italiako telebista katea. 11. (Ald.) Jangura. 12. Gutxiegi. 14. (Ald.) Ukatzeko erabiltzen den hitza. 15. Belardietan hazten den landare. 16. Ukatu aditzaren infinitiboa. 18. Bat eta bat. 19. Saudi Arabiako hiriburua. 20. Nasa.

Bertikalak 1. Pertsona baten buru-hezurak. 2. Su eman. 3. Gerraren jaingo eskandinaviarra. 4. Alfabeto grekoko hama hiru-garren letra. 5. (Ald.) Behean den tokira. 6. Itotzeko eran. 7. Erein gabe uzten den lursaila. 9. Ezer esan gabe. 13. (Ald.) Bai hitzaren laburdura. 17. Alkoholiko Anonimoak.

(Ald.) Ba. 17. A. A.
Bertikalak: 1. Buztut. 2. Itzeki. 3. Odin. 4. Nu. 5. (Ald.) Behera. 6. Itoka. 7. Lugort. 9. Isilik. 13. Belar. 16. Uka. 18. Bi. 19. Riad. 20. Kal.
Horizontalak: 1. Biona. 6. II. 8. Urdurtu. 10. RAT. 11. (Ald.) Gose. 12. Eznahiko. 14. (Ald.) Ez. 15.



LORAMENDI KIROLAK

Larunbat honetan, hilak 16 zator **AMFIT** eskaner berria proatzera.



5 minutuan zure oina aztertuz, zein oinetako kemeni zaizun jakingo duzu.

DOHAINIK!

Goiz eta arratsaldez Garibai kaleko dendan!

Irratian urtebetez bekadun

Saioa Ojangureni eta Unai Osinagari irratiko euren bekadun lanari uzteko txanda heldu zaie urtebetez lanean aritu ondoren.

— Urtebetez zer ikasi duzue?

— Saioa: Idazten eta irradian ondo ahozkatzen. Lotsa eta urduritasunak berriz, ez dira oraindik desagertu.

— Unai: Mikrofono aurrean lasai hitzegiten, ahozkatzen eta idazten.

— Nola gogoratzen duzue irradian hitzegin zenuen lehen aldia?

— Saioa: Nik hasieran grabatu egiten nituen esan beharrekoak, beraz, ez zen hain gogorra izan. Zuzenean hitzegin nuen lehen aldia



berriz, nahiko txarto pasatu nuen.

— Unai: Ni hasieratik sartu nintzen zuzenean eta nahiko gaizki pasa nuen lehenengo eguna.

— Telebistak ala prentsak ez zaitue erakartzen?

— Saioa: Telebistak behintzat ez eta prentsa idatzian ez dut esperientziarik.

Irratia gustatzen zait baina egia esan, urte osoa gauza berbera egiten pasatu dugu eta ez dugu beste gauza batzutan lan egiteko aukerarik izan, beraz, irratiaren parte txiki bat ezagutzen dugu.

— Unai: Telebista ez zait gustatzen kamara aurrean agertzea zaila delako, irratia berriz, askoz pertsonalagoa da.

Ezkontzak, afariak eta bataioak *Nonzeberrin*

Datorren asteazkenean, hilaren 20an, *Nonzeberri* saioa izango da ikusgai. Hile honetan, arrasatear ezagun batzuen ezkontzako irudiak eta urrezko eztaiak bete dituzten bi biko-terenak izango dira ikusgai.

Horrez gain, hainbat afari eta bazkarian izan dira *Nonzeberri*ko kamarak eta horietan jasotako giroa ere erakutsiko da. Bukatzeko, joan den domekan bataiatutako ume batzuen irudiak.

Arrasate Irratia

ASTELEHENA

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina:
Kiroletan Herrien arteko Olinpiaden elkarrizketa. Osasun tertean automedikazioa...
21.00 Caravanserai

ASTEARTEA

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina: Hiper Eroski aztergai.

ASTEAZKENA

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina:
Euskararen txokoa
21.00 KK2A

OSTEGUNA

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina:
Eusebio Iñarrari Lizardiren gaineko elkarrizketa.
21.00 Adi Egon. Gaia: Gazteak eta sexoa.

OSTIRALA

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina: Domi Korta Hies gaixoen alde Donostian egingo den gose grebaren gainean.
21.00 KGB

ZAPATUA

9.00 Albisteak
9.30 Jailarai
11.00 Zoroklasikoak (Dedikatorien tertea zabalik).

■ ATBko asteko programazioa

15 Ostirala	16 Astelehena	19 Asteartea	20 Asteazkena	21 Osteguna	22 Ostirala
13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/ 20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete Jose Mari Pagoagari, azken urteak deportatuta egon denari, elkarrizketa.	13.35 Astebete (Errep.) 20/ 20.30/21.00 Berriak 21.30 Mondrasport	13.35 Mondrasport (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Lotsa Barik Gonbidatua: Dantzariak	13.35 Lotsa Barik (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Nonzeberri	13.35 Nonzeberri (Errep.) 19.10 Kukaratxa Motel 20/ 20.30/21.00 Berriak 21.30 Kukaratxa Motel	13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20./20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete



Hotza iragarri dute eguraldi gizonak datozen egunetarako, eta gaurko argazkiko bi lagun

aurpegiak eta janzkerak ere mendi punta horretan hotz dexente zegoela adierazten du, behe-lainoa ere nabarmen.

Urkiola-Mendin aterata dago argazkia. Haitz punta-

puntan dagoena Juan Bautista Agirre, eta bere ondoan, berriz, Roberto Sampedro "Pitote" zena. Diotenez, sasoi hartan askotan ibiltzen ziren mendian kuadrila horretakoak.

Urtea: 1970

Argazkia: J. B. Agirre.

Informazioa: J. B. Agirre.

Laura

**Erdiko Kale, 30
Tel.: 79 05 80
ARRASATE**

Jose Aranzabal


San Andres auzoa
Tel.: 79 18 92
ARRASATE

DESKONTUA

+

OPARIA

% 20

FAGOR  sukalde altzaritan.



Ciclón Plus
b e r r i a

P.V.P.: 80.000 pta.



Eskaintza epea: 1996ko abenduaren 15a arte.



OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamentako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatu, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobe eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikaina.


BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 

 **TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.